

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

48. zenbakia

Data 2007-03-08

6179 orria

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

DONOSTIAKO UDALA

Adineko pertsona autonomoentzat ostatu eta elkarbizitzaren udal erregelamendua aldatzea. Behin betiko onespena. Akats zuzenketa.

DONOSTIAKO UDALA

Gizarte Ongizateko Administrazio Bulegoa

Akatsen zuzenketa

Behin betiko onartzea Adineko Autonomiadunentzako Ostatu eta Elkarbizitza Zerbitzuetako Udal Arautegiari eginiko Aldaketak.

2006ko abenduaren 14ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN behin betiko onartzea Adineko Autonomiadunentzako Ostatu eta Elkarbizitza zerbitzuetako Udal Arautegiari eginiko aldaketak eta, hala, 2006ko urriaren 31ean egindako bileran eman zaio behin betiko onartu izan horren berri Udalbatzari aditzera emateko iragarkia argitaratu zen, eta baita aldaketen testua ere.

Aldatutako arauen testuan, aldatzen ez zen jatorrizko testuari zegokion parentesi-deiak argitaratu ez direla egiaztatu denez gero, zuzendutako testua argitaratzeari ekiten zaio.

Donostia, 2007ko otsailaren 27a.—Edorta Azpiazu Laboa, Gizarte Ongizateko Zuzendaria. (2438)

Adineko Autonomiadunentzako Ostatu eta Elkarbizitza Zerbitzuetako Udal Arautegiaren aldaketak.

(...)

I. TITULUA

ARAUTEGI KOMUNA

1. KAPITULUA. ERABILTZAILEEI DAGOKIENA

4. artikulua. Erabiltzaileak zehaztea: Zerbitzuetan txertatzeko betebeharrak.

Araudi honetan arautzen diren zerbitzu edo baliabideetan txertatu nahi diren pertsonen honako betebeharrak bete beharko dituzte:

(...)

c) «Adineko autonomiadun»tzat hartua izatea, organo eskudunak kasu bakoitzean ebatzitako balorazio eskalaren arabera.

(...)

5. artikulua. Zerbitzuen erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak.

Apirilaren 6ko 64/2004ko Dekretuko, II. Kapituluko Lehenengo eta Bigarren Ataletan ezarritakoaz gain – dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen du–, zerbitzu hauen erabiltzaileek honako eskubide hauek dituzte:

5.1. Eskubideak.

— Zerbitzua EAEn ofizial diren edozein hizkuntzatan jasotzeko eskubidea.

(...)

2. KAPITULUA. -SARTZEKO PROZEDURARI DAGOKIONA

1. ATALA. Eskatzaile zerrendetan sartzeari dagokiona

6. artikulua. Zerbitzu eta/edo programen eskatzaileen zerrendak.

(...)

Eskatzailearen mendekotasunaren balorazioa alda daiteke, organo eskudunak erabilitako eskalaren arabera, eta horrek eragin dezake pertsona hori mendekotzat hartzea. Kasu horretan, Donostiako Udalak eskubidea izango du, ofizioz eta udal organo eskudunaren ebazpena betez, eskatzaileari eskatzaileen zerrendan baja emateko. Pertsona hori, baina, berriz ere zerrendan txerta daiteke, balorazio berri baten ondoren berriz ere autonomotzat jotzen bada.

7. artikulua. Eskatzaileen zerrendan sartzeko eskaera.

Arautegi honetan araututako zerbitzuen eskatzaile zerrendetan sartzeko, interesatuak organo eskudunari zuzendutako eskaera inprimaki normalizatua bete eta izenpetuko du. Ondoren, eskaera hori aurkeztuko du, Udalak horretarako jarri dituen sarrera Erregistroetako batean, Estatuko Administrazio Nagusiko, Autonomia Erkidegoen Administrazioa eta, horretarako hitzarmenik izanez gero, Tokiko Administrazioa osatzen duten erakundeetako edozein organo administratibotako erregistroetan, Postetxeetan edo Espainiak atzerrian dituen ordezkari diplomatiko edo kontsuletxeetan.

(...)

8. artikulua. Eskaerarekin batera aurkeztuko den dokumentazioa.

Eskaerak honako dokumentu hauekin batera aurkeztuko dira:

— (...)

— Organo eskudunak egindako balorazioa; horretan adieraziko da eskatzailea pertsona autonomotzat jo delako.

— (...)

— Behar denean, minusbaliotasunen bat jasaten duten eta/edo eskatzailearekin bizi diren pertsonen Minusbaliotasun Ziurtagiria, organo eskudunak egina.

(...)

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 35 f) artikulua aplikatuz, Udalak agiriak baldin baditu, herritarrek ez dituzte agiri horiek aurkeztu beharko. Helburu horrekin, interesatuek agiri jakin hori noiz eta non aurkeztu duten adierazi beharko dute. Hori egin ahal izango da, betiere, agiria aurkeztu zutenetik bost urte baino gehiago pasa ez badira.

(...)

10. artikulua. Txostenaren ebazpena.

Behin eskaera aztertu eta baloratu ondoren, proposamen txostena organo eskudunari igorriko zaio, eta horrek ebazpen arrazoitua emango du, eskatutako zerbitzu edo baliabidea eskuratzeko eskaera onartuz edo -atzera botaz.

Ebazpena gehienez bi hileko epean emango da, eskaera udal Erregistroetan sartzen den unetik aurrera. Epe hori luzatu ahal izango da, eskatzaileari eskaera zuzen dezan eskatzen zaionean, jakinarazpena bidaltzen zaionetik erantzun arteko denboran, eta, erantzunik ezean, emandako epea amaitu artean. Gainera, organo eskudunari eskatzailearen autonomiaren balorazioari buruzko derrigorrezko txostena eskatu behar bazaio ere, hasierako epea luzatuko da.

(...)

Ebazpena legeak agindutako epe eta betebeharrak errespetatuz jakinaraziko da, eta haren aurka, hautazko berraztertzeko helegitea jarri ahal izango da, organo eskudunaren aurrean. Bestela, zuzenean egin ahal izango da haren aurka, Administrazioaren eskumeneko auzi ordenaren aurrean, legeak ezarritako epe eta baldintzetan.

2. ATALA. Plazak esleitu eta eskuratzeari dagokiena

11. artikulua. Plazak esleitzea.

(...)

Plaza hutsak aurreko paragrafoaren arabera esleitu dira, organo eskudunak zerrendan sartzeko eskaera onartzeko emandako ebazpen berean, edo organo berak ondoren emandako ebazpenean, plaza bat hutsik geratzen denean. Azken kasu horretan, aurrez azaldu diren baldintza guztiak bilduko dira, eta ebazpena legeak agindutako epe eta betebeharrak betez jakinaraziko da.

(...)

13. artikulua. Plaza eskuratzeko.

(...)

Interesatuiei ezarritako egun edo epean azaltzea galarazten dieten baldintza bereziak agertzen badira, eguna aldatzeko edo azaltzeko epea luzatzeko eskaera egin ahal izango dute. Organo eskudunak, Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak txostena egin ondoren, egun edo epe berria ezarriko du, Erabaki baten bitartez. Hala ere, baldintzen arabera, plaza hori eskatzaile zerrendako beste pertsona bati esleitu ahal izango zaio; kasu horretan, eskatzailea beste plaza bat hutsik geratzearen zain geldituko da.

(...)

3. KAPITULUA. -EGOKITZAPENA, SEGIMENDUA ETA ZERBITZU ALDAKETA

(...)

15. artikulua. Ostatu zerbitzuetara egokitzeko aldia.

(...)

Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak, alegazioak aztertu ondoren, behin betiko proposamena igorriko dio organo eskudunari, eta horrek ebazpen arrazoitua emango du. Pertsona baliabidetik irtetea erabakitzen bada, alternatiba bat proposatuko da, horrelakorik bada behintzat.

16. artikulua. Baliabide edo zerbitzu aldaketa.

16.1. Interesatuak eskatutako aldaketa.

(...)

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek informazioa jasoko dute, eskatzailea bizi den zerbitzu edo baliabideari eta aldaketaren arrazoiei buruz, aldaketa egokia den baloratzeko eta aldaketa onartzeko. Ondoren, proposamen bat egingo diote organo eskudunari, eta horrek ebatziko du, eskaera jaso eta gehienez bi hileko epean. Epe hori ebazpenik eman gabe amaituta, eta ebazteko betebeharrari utzi gabe, eskaera ez dela onartzen ulertu ahal izango da, interesatuak hautazko berraztertze helegitea edo Administrazioarekiko auzi helegitea jartzeko aukera izan dezan.

(...)

16.2. Ofiziozko aldaketa.

Era berean, zerbitzuan sartu ondoren pertsonaren egoera fisiko eta funtzionala aldatzen bada, eta horrek mendekotasunaren beste balorazio bat egitea eragiten badu, eta, organo eskudunak erabilitako eskalaren arabera eginiko balorazio berriaren ostean, pertsona mendeko gisa sailkatzen bada, erabiltzaileari edo bere familia edo ordezkariari proposatuko zaio organo eskudunari eska diezaion mendekoentzako arreta espezializatuko bizitegi zerbitzu bateko plaza batera aldatzea.

(...)

Erabiltzaileari dagokion zerbitzuan baja ematea proposatzen bada, proposamen hori hari edo bere lege ordezkariari jakinaraziko zaio, legeak ezarritako epe eta betebeharren arabera, eta 15 eguneko epea emango zaio alegazioak egin ditzan. Epe hori amaituta, organo eskudunak ebazpen arrazoitua eman eta interesatuari jakinaraziko dio.

4. KAPITULUA. -ZERBITZUA ETETEA ETA IRAUNGITZEA

17. artikulua. Zerbitzua etetea eta iraungitzea.

17.1. Zerbitzua aldi baterako etetea.

Txostena bideratu eta Gizarte Ongizateko Zuzendaritzaren proposamenari jarraiki, zerbitzua aldi baterako etetea erabaki ahal izango da, organo eskudunaren erabaki baten bitartez eta interesatuari entzun ondoren. Erabaki hori onuradunari eta zerbitzua ematen duen erakundeari jakinaraziko zaie, legeak agindutako epe eta betebeharrak betez.

Zerbitzua etetea erabakiz gero, zerbitzuaren erabiltzaileak egoitza utzi beharko du, Erabakian adierazitako epean.

Erabakian ezarritako etete aldia amaitu ondoren, hori bera plazaren erreserba moduan ulertuta, erabiltzaileak eskubidea izango du bere plaza berreskuratzeko.

Honakoak dira zerbitzua eteteko arrazoiak, hori aplikatzeko epeak eta erabiltzaileak egin beharreko ekarpenak etete aldiak iraun bitarte:

— Egoitza borondatez uzteagatik (oporrak). Egoitza uzteko gehieneko epea 45 egunekoa da, jarraian izan edo ez. 45 egun horietan interesatuak plaza gordeta izango du, eta epe horretan bere ekarpenaren edo familiari eman behar dion laguntzaren %75 ordaindu beharko du. Etete aldia 6 egun baino gutxiagokoa bada, %100 ordaindu beharko du.

— Erabiltzailea ospitale batean sartzeagatik, 3 hil baino gehiagoko aldi. Epe hori luza daiteke justifikatutako balorazio teknikoarekin. Epe horretan, erabiltzaileak bere ekarpenaren edo familiari eman

behar dion laguntzaren %75 ordaindu beharko du. Etete aldia 6 egun baino gutxiagokoa bada, %100 ordaindu beharko du.

— Zerbitzua gaizki erabiltzeagatik. Erabilera okerrak honakoak izango dira: Elkarbizitzako eta elkarrekiko errespetuko arauak ez betetzea; zentroko instalazio eta baliabideak era txarrean erabiltzea edo bertako jarduerak nahastea; edonolako liskarrak eragin edo haietan parte hartzea; lagunei, langileei edo harrera familiako kideei irainez, biraoz edo edozein errespetu faltaz iraintzea; edozein gauza lapurtzea; eta norberaren edo gainerako erabiltzaile eta profesionalen segurtasuna nahita arriskuan jartzea.

Arrazoi horregatik zerbitzua gehienez ere bi hilabetez eten ahal izango da. Denbora horretan erabiltzaileak bere ekarpenaren edo familiari eman behar dion laguntzaren %100 ordaindu beharko du. Epe hori igaro ondoren, erabiltzailea egoitzara itzuli ahal izango da, betiere etete aldiko ekarpena ordaindu badu.

— Ordainketa justifikatu gabe berandutzeagatik (zerbitzuko bi ordainagiri edo harrera familientzako laguntzako hileko bi kuota). Gehienezko etete aldia hilabetekoa izango da. Epe horretan jakinarazitako zorra eta etete aldiari dagokion ekarpena ordaindu beharko ditu.

17.2. Zerbitzua iraungitzea.

Beharrezko txostena bideratu eta Gizarte Ongizateko Zuzendaritzaren proposamenari jarraiki, zerbitzua iraungitzea erabaki ahal izango da, organo eskudunaren erabakiaren bitartez eta interesatuari entzun ondoren. Erabaki hori onuradunari eta zerbitzua ematen duen erakundeari jakinaraziko zaie.

Zerbitzua iraungitzea adierazita, erabiltzaileak egoitza utzi beharko du Erabakian adierazitako denboran.

Zerbitzua honako arrazoi hauengatik iraungi daiteke:

— (...)

— Zerbitzuko hiru ordainagiri ordaintzeko garaian justifikatu gabe berandutzeagatik, edo ordainketa justifikatu gabe berandutzeagatik (zerbitzuko bi ordainagiri edo harrera familientzako laguntzako hileko bi kuota) izandako etete aldia pasa eta dagokion zor edo ekarpena ez ordaintzeagatik.

— Arautegi honetan erabiltzaileentzako aurreikusi diren bestelako betebeharrak behin eta berriz ez bete-
tzeagatik.

— Egoitza borondatez utzita edo ospitalean sartuta etete aldia gaintzeagatik, etenaldia handitu ahal izateko behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik.

— Zerbitzua gaizki erabiltzeagatik izandako etete aldia gaintuta, etenaldiari dagokion ekarpena ez ordaintzeagatik.

5. KAPITULUA. -ZERBITZUAREN ERREGIMEN EKONOMIKOA

18. artikulua. Zerbitzuaren prezioa.

Prezioak zerbitzuaren esleipenean zehaztuko dira. Behar denean, organo eskudunak prezio horiek eguneratuko ditu, zerbitzuaren esleipen baldintzetan ezarritako gehikuntzen arabera.

19. artikulua. Finantziazioa.

Finantziazioa honako hauen esku egongo da:

(...)

— Onuradunak zerbitzuaren finantziazioan parte hartuko du, organo eskudunak plaza emateko ebazpenean ezarritako kantitatea ordaintzeko idatzizko konpromisoa onartuz. Kantitate hori onuradunaren baliabide ekonomikoen arabera kalkulatu da, eta ezinbesteko betebeharra izango da Zerbitzuari hasiera emateko.

20. artikulua. Erabiltzailearen ordainketa.

(...)

Kasu berezietan, eta Gizarte Ongizateko sailaren txostenaren bidez, erabiltzailea ekarpena erabiltzetik salbuetsita uztea erabaki ahal izango da.

(...)

(...)

II. TITULUA

UDALAK ESKAINITAKO ZERBITZU EDO BALIABIDEEI DAGOKIENA

1. KAPITULUA. -DONOSTIAKO UDALEAN ADINEKO AUTONOMIADUNAK FAMILIETAN HARTZEKO PROGRAMA

(...)

27. artikulua. *Eskaerak bideratzeko prozedura.*

(...)

Donostiako udalean familia hartzaileak ez bada edo daudenak eskaera zehatz horretara egokitzen ez direla uste bada, organo eskudunaren datu basea baliatuko da, beste udaletako zerrendan familia hartzaile bat aurkitzeko.

(...)

28. artikulua. *Laguntza ekonomikoa.*

Urtean behin, organo eskudunak ebazpena emango du, baliabide horrek jaso beharreko laguntza ekonomikoa ezartzeko. Hartutako adinekoak zenbateko hori ordainduko dio familiari, oso-osorik edo Donostiako Udalak, II. eranskinetako ordainketa baremoaren arabera, emango dion laguntza ekonomikoa erabiliz.

Hartutako pertsona borondatez egoitza kanpo edo ospitalean sartu eta bertan dagoen bitartean, familiak plaza erreserba moduan jasoko duen zenbatekoa guztiaren %75 izango da. 6 egun baino gutxiagoko epealdietan izan ezik, horietan % 100 jasoko baitu.

Kasu horretan, Udalak adinekoari onetsitako laguntza ekonomikoa neurri berean txikituko da. Hartutako pertsona beste gizarte baliabide baten onuraduna bada, oinarrizko gizarte zerbitzuek baloratu ahal izango dute beste baliabide horrek harrerari dagozkion gastuetan zenbaterainoko eragina duen; horren arabera, laguntza ekonomikoa aldatu ahal izango da.

(...)

29. artikulua. *Famili harrera iraungitzea.*

Famili harrera, 17.2. artikuluan aurreikusitako arrazoiengatik ez ezik, honako hauengatik ere iraungiko da:

(...)

2. KAPITULUA. -ADINEKOAK APARTAMENTU SOZIALETAN/BALIOANITZETAN ETA KOMUNITATE ETXEBIZITZETAN HARTZEA

(...)

31. artikulua. *Zerbitzuaren xedea.*

(...)

Eskaintzen diren zerbitzuak honakoak dira:

1. Erabiltzaile guztientzako oinarrizko zerbitzuak:

— Ostatua, eremu pribatua eta baliabidean diren eremu komun guztiak erabiltzea barne.

— Eremu komunen eta arropa zuriaren garbiketa.

— Antolakuntza, zaintza, informazioa ematea eta tutoretza, baliabideko arduraduna den eta zentroan erreferentea den pertsona baten bitartez.

— Erabiltzaile bakoitzarentzat kasuko plan indibiduala prestatzea, autonomiaren galera arintzera zuzendutakoa.

— Famili eta gizarte harremanak mantentzeko eta gizarte harreman berriak sustatzeko laguntza, eta erabiltzaileen artean eragina duten harreman eta bizikidetzak alderdiak zaintzea.

— Gizartean sartzea eta parte hartzea bultzatzea eta laguntzea.

2. Erabiltzaileentzako aukerazko zerbitzuak:

— Mantenua: Gosaria, bazkaria, askaria eta afaria.

3. Autonomiari laguntzeko eta dependentziari aurre hartzeko zerbitzuak:

— Gizarte Ongizate sailak erabiltzaileei zerbitzu horiek esleituko dizkie enpresa kudeatzaileak detektatutako behar progresiboen arabera, betiere autonomia parametroak mantenduz.

— Eguneroko bizitzako jardueri laguntzea: Garbiketa, higiena eta janzteia.

— Garbiketa: Eremu pribatuak eta arropa garbitzea.

(...)

33. artikulua. *Betebeharrak.*

Alternatiba horien erabiltzaile izan ahal izateko, 4. artikuluan azaldu diren sarrera betebeharrak bete behar dira.

(...)

35. artikulua. *Eskubide eta betebeharrak.*

(...)

Zerbitzu horien erabiltzaileek bizi askatasunik handiena izango dute, Arautegiak ezartzen dituen mugen barruan. Honako eskubide hauek izango dituzte:

— (...)

— Urtean 45 egunetan plaza erreserbatzea, edo hiru hilabetez, erabiltzailea ospitalean baldin badago, Araudi honetako 17. Artikuluan jasotako baldintzak betez.

(...)

3. KAPITULUA. -BIZITEGI EKIPAMENDUAN HARTZEA

37. artikulua. *Zerbitzuaren xedea.*

Tutoretza eta laguntza tekniko jakin bat behar duten adineko pertsona autonomoei egoitza eskaintzea. Honako zerbitzu hauek eskaintzen dira:

— Arreta integrala:

(...)

5. Senitartekoei arreta.

38. artikulua. *Helburu orokorrak.*

(...)

3. Adinekoa kalitate oneko harremanak –hau da, laguntzakoak (emoziozkoa, informatiboa eta instrumentala) eta nortasuna finkatzekoak– eskainiko dizkion gizarte sarean txertatzea sustatzea, begirunezko arreta pertsonalizatu baten bitartez.

(...)

41. artikulua. *Eskubide eta betebeharrak.*

(...)

Zerbitzu horien erabiltzaileek bizi askatasunik handienaz gozatzeko aukera izango dute, Arautegiak ezartzen dituen mugen barruan. Honako eskubide hauek izango dute:

— (...)

— Urtean 45 egunetan plaza erreserbatzea, edo hiru hilabetez, erabiltzailea ospitalean baldin badago, Araudi honetako 17. Artikuluan jasotako baldintzak betez.

(...)

AZKEN XEDAPEN LEHENA

Tokiko Gobernu Batzordeari eskubidea ematen zaio Arautegi hau aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren arau guztiak eman ditzan.

(...)

I. ERANSKINA / ANEXO I

SARRERA BAREMOA / BAREMO ACCESO

(...)

BAREMOAREN EGITURA / ESTRUCTURA DEL BAREMO

Neurriak Dimensiones	Puntuazio tarteak, baliabide motaren arabera Intervalos de puntuación según el tipo de recurso		
	Harrera famiak Familias de acogida	Bizitokiak Alojamientos	Egoitza ekipamendua Equipamiento residencial
Eguneroko bizitzako jarduerak burutzeko lagundu			

beharra Necesidad de apoyos para la realización de las actividades de vida diaria	15	10	20
Elkarbizitzaren eta gizarte laguntzaren egoera Situación de convivencia y apoyo social	30	15	30
Bizitokirik duen, bertan zenbat denbora eman dezakeen eta zein baldintzatan dagoen Disponibilidad de alojamiento en el tiempo y situación del mismo	25	40	30
Egoera ekonomikoa Situación económica	30	35	20
Guztira / Total	100	100	100

I. Eguneroko bizitzako jarduerak burutzeko lagundu beharra.

(...)

Balorazio hori egiteko helburuz, administrazio eskudunak zehaztutako eskala erabiliko da.

(...)

IV. Egoera ekonomikoa.

Egoera ekonomikoa baloratzeko, kontuan hartuko dira adinekoak eskura dituen ondasunak (higigarrien eta higiezinen kapitala) eta Errenta (higigarrien eta higiezinen etekinak eta pentsio, soldata, etab-etatik jasotako diru-sarrerak). Ikus kontzeptuak II. Eranskinean jasotako erabiltzaile ordainketarako baremo ekonomikoan.

Per capita ondarea (ohiko etxebizitza kontatu gabe) 32.995,89 €koa baino handiagoa duten pertsonen (kopuru hori urtero eguneratuko da EAEko KPI-ren arabera), edo EAEAP-ren %300 baino errenta handiagoa dutenek, 0 puntu izango dituzte.

EAEAO-ren %300-etik behera, diru-sarrerarako 10 maila ezarri dira, eta horiek urrenez-hurren puntuatuko dira. Gehienez 10 puntu emango dira.

<i>Diru sarrerak</i>	<i>Puntuak</i>
<=% 110 EAEAP	10
>110-115	9
>115-125	8
>125-150	7
>150-175	6
>175-200	5
>200-225	4
>225-250	3
>250-275	2
>275-300	1
>% 300 EAEAP	0

II. ERANSKINA

ERABILTZAILEAREN ORDAINKETARAKO BAREMO EKONOMIKOA

Per capita ondarea 32.995,89 €koa (eranskin honetan jasotako zenbatekoak 2006. urtean eguneratutakoak dira) baino handiagoa duten pertsonen (kopuru hori urtero eguneratuko da EAEko KPI-ren arabera), ordaindu beharko dute, gauditutako partearekin, zerbitzuaren prezio osoa. Ondareak kopuru hori bera edo gutxiago osatzen duenean, adineko pertsona autonomiadunen egoitza zerbitzua ordaintzeko erabiltzailearen ekarpena honako formularen arabera izango da:

$$X - (\text{EAEAP } \%57) = Y$$

$$Z - Y = \text{Udalaren ekarpena}$$

Harrera Familiak:

X = -Erabiltzailearen diru sarrerak, honako hauek gehitzearen ondorio direnak:

— Higigarrien kapitaleko urteko etekin garbia / 12.

— Higiezinaren kapitaleko urteko etekin garbia / 12.

— Urteko diru sarrera korrante garbiak / 12.

Y = -Erabiltzaileak ordaindu beharreko zenbatekoa (gehienez, ezarritako laguntza osoa).

Z = Zerbitzuak ezarritako hileko laguntza ekonomikoa.

Apartamentu Balioanitzak/Sozialak, Komunitate Etxebizitzak, Egoitza ekipamendua:

X = -Erabiltzailearen diru sarrerak, honako hauek gehitzearen ondorio direnak:

— Higigarrien kapitaleko urteko etekin garbia / 365.

— Higiezinaren kapitaleko urteko etekin garbia / 365.

— Urteko diru sarrera korrante garbiak / 365.

Y = -Erabiltzaileak ordaindu beharreko zenbatekoa (gehienez, ezarritako laguntza osoa).

Z = Zerbitzuaren indarreko eguneko prezioa.

A. Aplikazio irizpide orokorrak.

— EAEAPren %57ko kantitatea babesten da, eta erabiltzaileak eskubide osoa du hura nahi duen bezala erabiltzeko.

— 32.995,89 € baino gehiagoko ondarea duenak zerbitzuaren prezio osoa ordaindu beharko du. Kantitate hori urtero eguneratuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko KPIren arabera.

(...)

— Erabiltzaileak mantenu zerbitzua ez jasotzea erabakitzen duenean, nahi bezala erabiltzeko kantitatea EAEAPren %105 izango da.